

Euskal presoak Elkartasun ekintzak



BOB EDMÉ

Bi lagun Baionako kartzelako paretan, pankartarekin, eta suhiltzaileak eta Polizia haiek jaisteko ahaleginetan.

Baionako kartzelan presoek Euskal Herriratzea eskatu dute

Bi lagun murrura igo eta beste hiruk tindaketak egin zituzten

Hur Gorostiaga / Baiona

Euskal presoek Euskal Herriratzea galdegiteko ekimena egin zuten atzo bost gaztek Baionako presondegi aitzinean. Bi mu-

rrura igo ziren, eta bertze hiruk tindaketak egin zituzten. Poliziak bostak atxilotu zituen, baina handik gutxira askatu zituzten. «Demokrazi eskasia» salatzeako kanpainaren lehen ekimena izan da.

ARRATSALDEKO hirurak irian izanen ziren, aurpegia maska zuriz estalirik eta buruan xapela zutela, bi gazte Baionako presondegiko murrura igo zirenean. *Euskal presoak Euskal Herrirat* eta *Demokrazia Euskal Herrirarentako* zioten banderolak agertu zituzten. Bertze hiruk gisa bereko tindaketak egin zituzten presondegiko paretan.

Murruan *demokrazia* hitza idazten ari zirela atxilotu zituzten beheko hirurak. Eskuburdinak eman, batzuk

airean bertzeak arrastaka sartu zituzten polizi kamionetan.

Goiko bien jaisteko, berriz, suhiltzaileen hiru kamioi joan ziren, eta azkenean bi zurubi automatiko behar izan zituzten poliziek. Atxilotuek inolako erresistentziarik agertu ez bazuten ere, lurreratzean gogorki estekatuz sartu zituzten kamionetan. Guztiak komisariat eraman zituzten. Handik ordu batzuetara askatu zituzten, eta martxoaren 23rako jarri dieten epaiketa eguna.

«Gizartearen gehiengoak behin eta berriz galdegin du presoek Euskal Herriratzea. Ekitaldi eta manifestaldi ugari egin da, legeak errespetatuak izan daitezten. Presoak gose greban bizitza arriskuan ezartzen ari dira. Gobernua, aldiz, isilik eta elkor egon da. Zer egin behar da herri honetan giza eskubideak errespetatzeko?» galdegin zuen haietako batek. «Demokrazia eskasia dago» esan zuen, «gisa bereko ekimen baketsu baina indartsuak» burutuko dituztela iragarritz.



JOXE LACALLE

Poliziak eragotzita.

Euskal presoek eskubideen alde astelehenetik Iruñean baraualdian dauden zortzi euskaltzaleak atzo kartzelaren aitzinean biltzen saiatu ziren, baina Espainiako Poliziak ez zien utzi. Kartzelatik ehun bat metrora gelditu eta identifikatu egin zituzten. Hala ere, kartzela parean egon ziren une batez, barrukoei «elkartasuna» adierazteko.

Andoni Muñoz de Vivar presoak utzi egin du gose greba


Erredakzioa / Donostia

Andoni Muñoz de Vivar presoak gose greba utzi egin behar izan zuen asteartean osasun arazoak ondorioz. Urdulizko preso hori abenduaren 3az geroztik zegoen gose greban. Urdaileko eta gibleko arazoak zituelako, Langraizko kartzelatik Txagorritxuko ospitalera eramanean zuten astelehenean, eta asteartean utzi zuen

baraualdia, 34 egun gose greban egin ondoren.

Preso horrek gose greba utzi ostean, orain 18 preso jarraitzen dute baraualdian Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako kartzelatan.

Gose greba utzi behar izan duten presoek artean, berriz, bederatzik jarraitzen dute ospitalean. Jada 54 preso hartu dute parte azaroan hasi borrokaldian.



MERKEALDIAK



EUSKAL PIEL

MODA - DENDAK

BARAKALDO
Max Center, A-51
IRUÑA
Zapateria, 39

BEDIA
B°. Murtatza, s/n
DONOSTIA
Getaria, 20

BILBO
Correo, 16
GASTEIZ
Independencia, 34